

GLOBAL TRAINING BEKAK 2022 – Eskabide Orria

Z E d h < / h E W < K / Z W E

Behean sinatzen duenak:

Aitortzen du:

- a) Eskeraan jasotako informazioa, curriculum vitae eta erantsitako dokumentuak egiazkoak direla eta errealitatearekin bat datozela.
- b) Horrez gain, ez duela bete beste eskaera bat Global Training 2022 bekarako hautagai moduan; bestela, hautaketa prozesutik kanpo geratuko da, eskaerak bikoizteagatik.
- c) Beka normaltasunez garatzea eragozten duen gaixotasunik edo muga fisiko edo psikikorik ez izatea; edo beka onartzeko orduan ez izatea eguneroko bizitzako jarduerak mugatzen dituen patologiarik.
- d) Unibertsitate-tituludunentzako antzeko prestakuntza helburua duen beste edozein laguntza jaso ez izana, baldin eta, laguntza horren bidez, nazioarteko erakunde edo enpresetan 6 hilabetez edo epe luzeagoz praktikak egin badira atzerrian. Bereziki, beka hauetaz baliatzea ez da bateragarria honako beka hauen onuradun izatearekin: Global Training beka, ICEX beka, beste autonomia-erkidego batzuenak, merkataritzaganberenak, EBko Merkataritza Sustatzeko Erakundeak edo antzeko beste erakunde batzuenak.
- e) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta izatea.
- f) Diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion zigor administratiborik edo penalik ez izatea edota horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ez izatea, sexua medio diskriminatzeagatik gertatutakoak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko Seigarren Azken Xedapenean ezarritakoaren arabera".
- g) Global Training praktika egingo den enpresan edo erakundean lanik edo praktikarik egin ez izana.
- h) Inola ere ez dela jarriko harremanetan harrera-enpresarekin, hautapen-prozesutik kanpo geratzeko arriskuarekin.
- i) Onartzen dituela bekaren baldintzak. Horien arabera, beka emateko unean langabezian egon behar da.
- j) Bekadunarena izango da bekaren denboraldi osoan zehar dagokion dokumentazio guztia indarrean eta behar bezala izateko erantzukizuna.

.....-n, 2022koaren(e)an.

Izen-abizenak:

NAN:

Sinadura:

GLOBAL TRAINING BEKAK 2022 – Eskabide Orria

DOKUMENTAZIOA

Honako hau bidali beharko da beka eman duen erakundeari baldintzak betetzen direla egiaztatzeko:

- a) Jaiotegunaren egiaztageria (NAN, jaiotza-agiria edo jaiotzaren dokumentu fede- emailea).
- b) Curriculum vitae.
- c) Administrazio-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duela ziurtatzen duen agiria, artikulua honetan zehaztutakoarekin bat etorritz.
- d) Bekadunak dagokion titulazioa –eta, hala badagokio, homologazioa– duela ziurtatzen duten egiaztageriak, eskumena duen instantziak emandakoa.
- e) Eskatutako hizkuntzaren egiaztageria, gehienez ere 4 urteko antzintasuna izango duena. Halakorik izan ezean, hizkuntza maila-proba egin beharko da..
- f) Erantzukizunpeko adierazpena (eskabide orri honetan agertzen da):
 - Bekadunaren zeregin eta betebeharrak behar bezala burutzeko eragotz lezakeen gaixotasunik ez izatea.
 - Antzeko beka baten onuraduna ez izatea, artikulua honetan xedatutakoarekin bat.
 - Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta izatea.
 - Zerga-betebeharrak egunean izatea.
- h) Bi argazki, karnet tamainakoak, atzealdean izena idatzita.

Frantsesaz edo ingelesaz bestelako hizkuntzaren batean idatzita dauden dokumentuak aurkezten badira, horien itzulpena ere aurkeztu beharko da EAEko edozein hizkuntza ofizialetan.

Jatorrizko dokumentazioaren fotokopia aurkeztu beharko da